

Elur-maluten argazkilaria

“Mikroskopia azpian, ikusi nuen elur-malutak edertasun-mirariak zirela; eta lastima zen edertasun hori besteek ere ez ikustea. Kristal bakoitza diseinu-maisulan bat zen, eta diseinu bat bera ere ez zen errepikatzen. Elur-maluta bat urtzean, diseinua betiko galtzen zen. Halako edertasuna joana, atzean inolako arrastorik utzi gabe.”

Wilson Bentley-ren hitzak dira. Hamabost urte zituela amak oparitutako mikroskopia zahar batean elur-malutak behatu zituztenean, txunditurik gelditu zen, eta haiek marraztea izan zen Bentleyren desioa. Baina urtu baino lehen marraztea oso lan zaila zen, eta ez zuen lortzen maluten forma konplexuak fidelki islatzerik. Hala, mikroskopiaari argazki-kamera bat gehitzea pentsatu zuen. Ez zen erraza izan, baina probatuz eta probatuz doitu zuen teknika. 1885eko urtarrilaren 15ean, oraintxe 125 urte, elur-maluta bati historiako lehenengo argazkia atera zion.

Harrezkero hura izan zen Bentleyren bizitzako pasioa. Bost mila malutatik gora jaso zituen argazkitan. Bost mila “izotzezko lore”, haren hitzetan.

ARG.: NOAA'S NATIONAL WEATHER SERVICE COLLECTION.



